

GIZA-ESKUBIDEEN GIZATASUNERANTZ?

KARMEL-en ale honetan gertakari bi izan dira batez ere kontutan: Ama Birjinaren 2000. urtea eta Frantziako Iraultzaren 200.a. Oroitzapen hauek, giza-eskubide eta benetako gizatasunari buruzko gogoetak eragin dituzte gudan.

Gizatasunerantz garamatzen bidean, gizakia bere giza-izatez jantziagoa, bere nortasunez beteago izatea bilatzen da. Eta horretarako hor ditugu hainbat aldiz aldarrikatuak diren giza-eskubideak. Hala baina benetan betetzen diren ala itxuraz soilik pentsatu beharko genuke..

Gizakiaren historia bere duintasunera eta giza-eskubideen aldeko burruka izan ohi da; gizabanakoaren eta gizataldeen historia; eskubideak erdiesteko egindako ahaleginen eta horretan izandako porrotoen historia.

Amerikako askatasun-aitorpenean (1776. urtean) jadanik giza-eskubide batzu adierazi eta aldarrikatzen dira. Hala ere giza-eskubideen aitortenik zaratatsuena Frantziako Iraultzan egin zen (1789.ean). Errusiako konstituzioan ere, 1936.ean, nahiko azpimarratzen dira eskubide hauek. Eta azkenez, ONU-k 1948.ean egindako giza eskubideen aitorten unibertsa dugu.

Norentzat, baina, giza-eskubideak? Aldarrikatzen dituztenentzat? Oso gogoan izatekoa da aitorten horien egileek zer

irakasten duten eta nolako jokabidea duten: Amerikarrak, adibidez, indioak menperatuz, euren inperialismo ekonomikoarekin. Frantziako Iraultzak aldarrikaturiko giza-eskubideak urkabe, genozidio, bortizkeria eta hondamendiz lagundurik datoz. Errusiarrak ere giza-eskubideak aldarrituz batera gulash eta Siberia, jazarpen politiko eta erlijioso, eta inperialismo gordina... Kontraesan hauen zerrenda asko luza daiteke beste nazio batzutan ere... Espainian, Euskal Herrian... Hain handikiro aldarrikatzen diren eskubideak norentzat dira? Zertarako aldarrikatu eskubideak, inork bete ditzan ala?

Telebizio eta prentsaren eraso bidegabeak, agintekeriazkoak eta nortasun-ahultzaileak jasan behar dituztenen eskubideak non daude? Non daude langabezian daudenen eskubideak? Baina batez ere nork hartzen du kontutan gosez hiltzen direnen bizi izateko eskubidea? Eta nork, oraindik jaiotzeke daudenena?

Geure buruari dagozkion eskubideei buruz asko hitz egin ten dela dirudi, baina ez inoren eskubideei buruz. Itxurak eta lorpen batzu gorabehera, giza-eskubideen aitorten guztiekin ere, gizatasun handiagorik ez dagoela ageri-ageriko gauza da. Gauza batzutan bai aurreratu da; baina beste batzutan atzeratu ere bai. Milaka gizaki gosez hiltzea, eskubiderik gehiago aipatzen lotsa izateko ainakoa da. Beraz, gizakia bere giza-izatez geroago eta justuago ikusten dugu; geroago eta aldenduago bere giza-ardatzetik...

Berba eta berba egin ohi da ia inoiz ere betetzen ez diren eskubideei buruz. Baina gizatasunaren gakoa elkarrekiko harreman eta obligazio azkeetan datza, eta ez hainbeste giza-eskubideetan, ez eta betetzen direnetan ere. Gizakiak, besteekiko harremanetan, ingurukoei emandako erantzun jatorretan lortuko du bere gizatasunez hornitzea, bere burua osoago egitea. Gizakia isolaturik ez da hain pertsona. Gizakia bere baitan kiribildurik dagoencan, ez da gizatiar ez eta aske ere izango.

Gizatartzeak gizaki osoaren izan behar du eragina. Absolutzat hartzen bada zerbaiz, gizakia gizatasunez txirotu, murriztu

egin ohi da: diru-gosez, atsegin sexualaren bila itsu-itsuan jokatzten den guztian; gorrotoaren atzaparretan erortzen den guztian ere txirotu egiten da pertsona, gorrotoak ez bait du gorrotatua hondatzen, batez ere gorrotatzailea bera baizik; isolapena nagusi den gizartean, harremanen haustura gertatzen den gizartean ez da gizatasun aberatsik izango...

Orain dela 2000 urte hasi zen benetako gizatarkuntza: andra xume, apal eta guztiz ireki batek gizonik gizonena, gizatiarrena, Jainkoa izanik era berean gizatasunez ere betena sortu zuen: Jesus.

Mariak bere emakume-izate bete lortu zuen bere burua bestecengana irekiz, maitatua izanez eta maitatuz; maite duenaren esanera jarriz, bere burua eskainiz. Ez du giza-eskubiderik aldarrikatzen, maitearengandik datozkion eskakizun aberasgarriak bete baizik. Behartsuaren giza-izatearekin bat egiten du. Ez du hitzez oihukatzen, baina bai ere bizikeraz aitortu bizitza-eskubidea, gizatasun beteagoa izateko eskubidea, gizonago nahiz emakumeago izateko eskubidea. Emakumerik emakumecnak, gizakirik askatuenak ez du askatasunik eskatzen. Maite duenak ez du askatasunik esigitzen, maitasuna bera baita askatasuna.

Nork bere ikuspegitik ikusten du, baina errealitatea hor dago: gizatasunez hustu den mundu honetan eskubideak eskatzen dira. Emakumerik emakumecna, askeena, bestecengana irekiena aurkitzen dugu kristautasunaren sorreran: Maria; eta kristautasunetik landa ez dago benetako gizatasunik.

Gaur egun kontraesan larri bat nabari da: giza-eskubideak aldarrikatzen dira (kristau-mezuarekin bat datozenak dira gainera), baina kristautasuna baztertu eta haren mezua isildu egin ohi da...!

Kristautasunak gizakiaren benetako gizatarkuntza du helburu, eta hori Mariaren semearekin, eskubiderik gabe gurtzean hil, baina benetako gizatasunaren sortzaile den harekin bat egitean lortuko dogu.